

• OARSO BIDASOKO •

**1.000.
ZENBAKIA**

HITZA

1.000 esker!

HITZaren astekariaren 1.000. zenbakia da honakoa. Herrietako errealitatea kontatzen izan da tokiko euskarazko hedabidea gaur arte. Eta jarraituko du.

OSTIRALA, 2026KO
MAIATZAREN 15A
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus





***Pasaiako herritik
dator notizia:
Oarso Bidasoko HITZAK
1.000. zenbakia!***

***Izan daitezela
beste mila!***





• OARSO BIDASOKO •
HITZA

Oiartzualdeko Hedabideak S.L.ko kideak:

- Oiartzun Irratia
- Orratx! Kultur Elkartea
- Antxeta Irratia
- Bertako Hedabideak
- Pausu media
- Lau Haizetara
- eta Oarsoaldeko beste 53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak.

Udalak: Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Hondarribia.



Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:

Irun kalea 8 behea, 20100 Errenteria-Orereta.

Telefonoa:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Telefonoa:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):

943 30 30 35

harpidetza@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidaso.hitza.eus



Aulkiak

URKO ETXEBESTE PETRIENA

OARSO BIDASOKO
 HITZA-REN
 ZUZENDARIA



Gorrotu ditut aulki hutsak. Inor ere eserita ez dauden horiek. Herri ekimeneko jarduerak direnean bete gabe dauden espazio horietaz ari naiz: izan bileretakoak; batzarretakoak; poesia, antzerki ipuin kontaketa edo musika emanaldietakoak; edozer jarduerara joateko autobusetakoak; kiroldegietakoak; estadioetakoak; herri bazkari-afarietakoak; edo zutik egon beharrekoetan (elkarretaratzeak, manifestazioak, dantzaldiak...) eserlekuen ordez pertsonak bete behar dituzten espazio horietakoak. Pentsatzen dut hutsik dauden toki horiek betetzeko adinako interesa dutela egitasmo edo jarduera horiek; antolatzaileek espero zutela *sold out* egitea; mimoz denbora luzez prestatuko horrek tiradizoa izatea. Dudan ofizioagatik, maiz ikusi ditut ondo-ondo lerrokatuta jarrita eta ipurdia faltan zuten altzari horiek. Eskuan duzuna OARSO BIDASOKO HITZA-ren papereko edizioaren 1.000

zenbakia da. Horren aurretik OARSOALDEKO HITZA-k eta Behe BIDASOKO HITZA-k egin zuten bere bidea. Halabeharrez, 2010ean bat egin zuten euskarazko bi hedabideek. Baditugu harpidedunak (HITZAKideak), publizitatea jartzen digutenak, laguntzen gaituzten erakundeak, informazioa fidel-fidel bidaltzen diguten herritar eta eragileak, gure ekoizpena (Internetekoa, sare sozialetakoa, bideoetako, paperekoa) adi-adi irakurri edo ikus-entzuten dutenak. Baina guk ere aulki hutsak ditugu. Asko.

Gure eserleku beteek asko laguntzen gaituzte. Hala izan da beti. Haiei esker (harpidedunei, publizitatea jartzen digutenei edo erakundeei), 1.000. zenbaki honetara iritsi gara. Karmele Mitxelena sortzaile oiartzuarrak milagarren zenbaki hau sustatzeko kanpainarako egindako testuan esan duen bezala, *1.000 zenbaki. Hori bakarrik, eta hori guztia*. Txiki gara, baina uste dut asko egin dugula. Sentitzen dut etorkizunerako haziak erein ditugula euskaratik; tokikotasunetik; gauza edo egitasmo eta ahots txiki-handiei merezi eta

behar duten espazioa emattetik; inguruko errealitatea ulertu eta nahi bada eragiteko elementuak jendaurrean jartzetik; inguruan ditugun borrokak, ospakizunak, dezepzioak eta arrakastak zabaltzetik...

«**Atzera begira, sentitzen dut etorkizunerako haziak erein ditugula, euskaratik**»

Baina HITZA-k ere aulki hutsak ditu; aurrera egiteko euskarazko tokiko hedabidearen edukiak kontsumitzen dituztenak, eta bereziki babes ekonomikoa emango digutena behar ditugu, HITZAKideak. Gure eserleku beteek, gure herrietako eragile, talde, norbanako edo erakundek jartzen dituzten aulkiak betetzen laguntzen dutelako. Bete ditzagun denek aulkiak. ■

1.000: hori bakarrik, eta hori guztia

OARSOALDEKO HITZAren eta BEHE BIDASOKO HITZAren baturatik sortu zen 2010eko azaroan OARSO BIDASOKO HITZA. Hedabidearen papereko edizioa, egun astekari dena, 1.000 zenbakietara iritsi da sostengu zuzena eman dioten guztiei esker.

B

ada esaten duenik zerbaitetan hasia erraza dela; horri eustea dela zailena. Hasierako ilusioarekin hazten segitzea, eguneroko bihurtu-neak saihestu baino, horiekin ikastea. OARSO BIDASOKO HITZA-ren lehen astekaria 2010eko azaroan banatu zen harpidedunen artean. Ordutik, lehenengo egunkari maiztasun eta itxurarekin, ondoren astekari eta aldizkari formatuarekin beste 999 zenbaki iritsi dira. Gaur mila. Karmele Mitxelena idazle oiartzuarrak lau zifrako kopuru honen ospakizunetarako prestatu duen testuan agertzen den bezala, 1.000 zenbaki, hori bakarrik, eta hori guztia.

Euskarazko tokiko informazioa ahalik eta jende gehien irakurtzen jartzea. OARSO BIDASOKO HITZA-ren misioa da hori. Xumetasunetik abiatuta, esan daiteke hori lortzen ari dela hedabidea. Datuek hala diote: CIES neurketaren arabera, 16.000 dira astero hedabidearen papereko edizioa (osoa edo zatiren bat) irakurtzen dutenak; Interneten, bestalde, ia 400.000 bisitari izan zituzten bi webguneek, *bidasoa.hitza.eus*-ek eta *oarsoaldea.hitza.eus*-ek. Sare sozialetan ere presentzia oso nabarmena du hedabideak, dituen artean milaka eta milaka dira jarraitzaileak... Datuak dira horiek, baina.

Datuez, zenbakiez gaindi, herritarren ahotsa jasotzen saiatu da, eta ahalegintzen da hedabidea. Sortzen dituztenak,



Prana
Eshuz epindako terapiak

Hitzordua hartzeko:
www.masajeakerrenteria.net
690 291 383

Kriston masaje onak!

Lanbide Heziketan ikerketa sustatzen

Tknika

Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatu Zentroa
Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi
Basque VET Applied Research Centre

ELUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



arrakastak, ezustekoak, porrotak, irabazitakoak, galdutakoak... Batzuetan irribarrearekin, bestetan haserre, edo goibel. 1.000 zenbaki hauetan jasotako istorio eta bizipenak beste milaka izan dira, baina beti premisa batekin: jendearen, herritarren, eragileen, taldeen, erakundeek esandakoa jaso, eta euskaraz zabaltzea.

1.000 zenbaki horien testuen, argazkien, edo azken aldian askoz maizago egiten diren bideoen atzean pertso-

nak daude, langileak, kazetariak. Beti ez dugu asmatu. Baina beti gertatutakoei, errealitateari, edo iritziei zintzo eta fidel izaten saiatu gara.

Aldatu gara

Nor, zer ez da aldatu azken hamabost urtean? HITZA bai. Papereko egunkarira edo astekarira hertsu bizi eta horretan lan egin izatetik, Internetek iraultza ekarri du. Zer, nola eta noiz komunikatu aldatu da. Webgunea da egun

HITZA-ren egunkaria, hor egosten dira eguneroko gorabeherak; astekari honekin saiatzen gara dena soseguz lantzen, lasai irakurtzeko. Baina beti, bidean lagunak izan ditugu: harpidedunak, publicitateak jartzen duten enpresa eta komertzioak, erakundeak... Haiei esker ari zara oraintxe hau irakurtzen. HITZA-k beste 1.000 egin ditzan, askoz gehiagoren bultzada behar du, ordea. Asko egin dugu; asko gara. Gehiago egiteko, gehiago izan behar gara. ■



kabigorri

Peña kalea, 1. Irun.
www.kabigorri.org



Zorionak, Erretereria!
Aniztasunaren hiria gara




ERRETERERIA
UDALA



EUROPEAN CAPITALS OF
INCLUSION AND DIVERSITY



OARSO BIDASOKO HITZAREN bilakaera



1.000. zenbakia

2010eko azarotik mila azal, mila zenbaki sortu ditu HITZAK. Pentsa zenbat gai, arlo, kezka, poztasun, ezinegon edo garaipen azaldu diren horietan guztietan. Azal bakoitzak istorio bat izan du nagusi. Jarraian, azal bidez, 1.000 zenbakien errebasoa.

Irun Santiagoko Deabruen Belduraren Pasabidea, bihar 4

OARSO BIDASOKO hitza

Jaizkibel-Ulia babes gunearen gaineko azken jardunaldia Lezon egingo dute

Hilaren soan egingo dute batzara. Gela Andorlanen, 300etatik aurrera herritarren parte hartuko eduki dute antolatzailek. Babes gunearen gaineko lasterka osatuko herritarren eta elkartuen elkarlanean jaso dituzte horien artean Lezoko Udaren edozein daude.

Hondarribiko Kultur Etxea, urtebete barru

Udaleko ondoezariek eta artistekok lanak nola ibiltzen jalkitxo bista egin dute.




Udazkeneko kanpaina abiatu jarri du Laurak Batek

Proiektu berria hasitako kanpaina abiatu jarri du udazkeneko kanpaina abiatu jarri du.

Beraun-Kapuzinoetako igerilekuen alde dago EB

Jan Carlos Merino Erretorikak aldarrikatu du udazkeneko kanpaina abiatu jarri du.



➔ **Euskara, harategietara.** Oarsoaldeko lau udaldiru harategietan euskara erabiltzeko kanpaina abiatu jarri du. Estatuaren menpekoak produktuen gainerako informazioa erabiltzeko kanpaina abiatu jarri du. Oarsoaldeko udaldiruaren abiatu jarri du. Hilario Amalari eta Andoni Luis Aduriz zango dira esparruak hitzak.

2010eko Neguko Jardunaldiak

Hondarribiko herri, gaiti eta kulturaren aldeko ekitaldiak.

Antzerki eta zuzeneko Hondarribiko ekitaldiak herri dute. Antzerki eta zuzeneko.

2010-11-05 OARSO BIDASOKO HITZA JAITO ZEN, ETA ASTEARTETIK OSTIRALERA 8 ORRIALDEKO EGUNKARIA ARGITARATZEN ZEN. Beharrak bultzatuta, BIDASOKO HITZA eta OARSOALDEKO HITZA batu egin ziren 2010eko azaroan. Krisialdi orokorrek, eta papereko prentsaren gainbeherak behartu zuen batzea bi egitasmoei aurrera jarrai zezaten. 2010eko udazkeneko egun hartakoa izan zen OARSO BIDASOKO HITZAREN lehen zenbakia. Hasierako hartan egunkari formatukoa izan zen HITZA.



2011-05-23. UDALETAKO HAUTESKUNDEAK. 2011ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeak izan ziren OARSO BIDASOKO HITZAK landu zituen lehenak. Orduetik, hurbilen diren erakundeetako hautetsiak aukeratzeko beste hiru udal hauteskunde izan dira. Agintean berresteak, aldaketak, gorabeherak eta bestelako asko kontatu ditu HITZAK 1.000 zenbakitan zehar. Herritarrek euren iritzia eman duten bakoitzean, hor izan da hedabidea.



2012-09-27. LANGILEEN GREBA OROKORRA. 2012ko irailaren 26an greba orokorrerako deia egin zuten hainbat sindikatuk. Krisialdi beteán, askotariko murrizketen kontrako borroka eguna izan zen. OARSO BIDASOKO HITZAren ia hamabost urteko bidean asko izan dira bi eskualdeetako enpresetan eta ekonomia arloko eragileetan izan diren lan gatazka eta gorabeherak, tartean beste hainbat greba orokor deialdi izan direlarik. Horiek denak jaso ditu HITZAK.





2014-05-09. EKONOMIA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA. Tokiko ekonomiari presentzia berezia izan du OARSO BIDASOKO HITZAn. Arrantzaren sektorearen beharaldiaren lekuko izan da hedabidea, nahiz eta garai berezietan, antxoarenean bereziki, goraldia izan alor horrek. 2014ko iraileko zenbaki hartan Gure Esku Dagok erabakitzeako eskubidearen gainean abiatutako dinamiken berri ere eman zen.

2015-01-30. DISEINU BERRIAK, ETA MARKA IRUDIA. OARSO BIDASOKO HITZAK egiten duen hori ahalik eta era erakargarrienean zabaltzeko bokazioa izan du. Edukiak beti ahalik eta zehatzen lantzeaz gainera, eduki horiek egokitutakoarekin zabaltzen saiatu gara. 2015eko urtarrilaren bukaeran diseinu berriak estreinatu zituzten HITZaren astekaririk, eta bi webguneez ('bidasoa.hitza.eus' eta 'oarsoaldea.hitza.eus').



2017-09-01. ARRAUNA. Oarsoaldean eta Bidasoan erro sakoneko kirola da arrauna. 2017ko irailaren hasierako zerbakiaren urte hartako Kontxan bertako traineruen aukeren berri eman zen. Traineruez gain, batelen, trainerillan eta aulki mugikorreko estropaden berri eman du HITZAK. Datua: 2011tik, OARSO BIDASOKO HITZaren lehen zerbakitik gaur arte, bederatzi Kontxa irabazi dituzte bertako traineruek: lau Hondarribiak gizonetan (2013, 2018, 2019, 2020), eta bost San Juanek emakumeetan (2014tik 2018ra jarraian).



2020-03-20. PANDEMIA. 2020ko udaberrian COVID-19aren pandemia iritsi zen. Ia dena gelditu zen. HITZA ez, ordea. Galdera askoko eta erantzun gutxiako aroa pandemiaren hasierako hura. HITZAn datuetan oinarritutako (kutsatzeak, tasak, hildakoak...) kazetaritza egiten hasi ginen orduko hartan, baina gutxira, ohartu ginen pertsonak, zaintzak, elkartasunak, osasun politikek edo zaugarrienen izan behar zutela gure fokuan.



2021-01-08. EGUNKARI FORMATUTIK, ALDIZKARIRA. OARSO BIDASOKO HITZaren astekarian erabateko aldaketa izan zen 2021eko urtarrilean.

Egunkari formatuko astekari izatetik, aldizkari itxurako 32 orrialdeko euskarria jasotzen hasi ziren harpidedunak. Itxuran, edukien lanketan, atalen banaketan eta hedabidearen barne funtzionamenduan erabateko iraultza izan zen ordukoa. Egun, halakoa da HITZaren astekaria.



2023-11-30. GREBA FEMINISTA.

Zaintza eredia eraldatzea aldarri nagusi izanik, 2023ko azaroaren 30ean greba feminista orokorra izan zen Euskal Herrian. Urte hartako azaroaren 24ko zenbakian greba horren gaineko informazioa eman zuen HITZak. OARSO BIDASOKO HITZA sortu zenetik mugimendu feministaren bilakaera erabatekoa izan da, esan daiteke jendartea eraldatzeko gaitasun handiena izan duen mugimendua izan dela.

2024-06-07. EDIZIO SISTEMA ETA DISEINU BERRIA.

Astero HITZaren astekaria jasotzen dutenak agian ez ziren konturatuko. Baina 2024ko ekainaren 7ko zenbakia berezia izan zen HITZarentzat: astekaria maketazio sistema jakin batean egitetik, sarean oinarritutako beste batera pasa zen astekariaren egikaritze prozesua. Hala, langileentzat errazago, arinago, eta saretuago lan egiteko aukera zabaldu zen. Kultur gaiak landu ziren 914. zenbaki horretan nagusiki, kulturaren sarearen zaindari ere baita HITZA.



2025-10-17. PALESTINA.

Ia hamabost urteko bidean askotarikoak izan dira HITZaren astekariak landu dituen elkartasun egitasmoak, askotarikoak gainera. Jendartea bereziki hurbildu eta batu duena bat izan da: Palestinako herria jasaten ari den genozidioari aurre egitea. 2025eko urriaren 15erako greba eta lanuzte deialdia egin zuten hainbat sindikatuk Palestinako herriaren alde. Hori, eta herriz herri izan diren ehunka deialdiak HITZAn azaldu dira.



URKO IRIDOY ALZELAI

HONDARRIBIA



Hondarribia Futbol Elkar-tearekin harreman estua izan du Naiara Salinas Arbelaizek betidanik. Jokalaria izan zen, ondoren entrenatzailea, eta orain, lehendakaria. Zelaitik kanpo, argi du: Hondarribia maite duen hondarribiarra. HITZAKidea da, eta tokiko hedabideen garrantzia nabarmendu du.

Zergatik zara HITZAKide?

Esango nuke hasieratik egin nintzela HITZAKide. Hasiera hartan gauza berria zen, herriko informazioa eta euskaraz ematen zuen zerbait. Nik uste horregatik erabaki nuela proiektua babestea. Hori ez ezik, uste dut oraindik babes hori beharrezkoa dela. Gaur egun, gehienbat pantailen bitartez, mundu guztian gertatzen denaren berri dugu, baina azken finean hemengo albisteak, herritarren adierazpenak eta iritziak jasotzea nire ustez oso aberasgarria eta garrantzitsua da.

Herrian gertatzen denari ahotsa ematea beharrezkoa iruditzen al zaizu?

Noski, erabat. Ez gara leku guztietara iristen, baina egiten duzuen lanarekin hainbat ekitaldi eta gauzaren berri dugu. Nire ustez herriarekin eta herritarrekin komunikatuagoa egoteko forma ederra eta aparta da.

Zer ekarpen egiten du HITZA-k?

HITZA bada herria bizirik mantentzeko era bat. Ez badugu berririk, ez badugu tokiko informaziorik, azkenean hiri handi baten moduan arituko ginat-

NAIARA SALINAS ARBELAIZ HITZAKIDEA

«HITZA bada herria bizirik mantentzeko era bat»

ke. Herria zaindu egin behar da, nire ustez. Hondarribiarra naiz betidanik, Hondarribia maite dut, eta noski, herria bizirik mantendu nahi dut.

HITZA irakurtzeko momentutxoren bat hartzen al duzu astero?

Digitalean asko irakurtzen dut, paperean baino gehiago. Oraindik ere gurasoen etxera iristen zait, eta bertara hurbiltzen naizenean normalki beti hartzen dut momentu bat zer eduki dagoen ikuste-

ko. Beti begiratzen dut ea badagoen zerbait atentzioa deitzen didana, ondoren lasaiago irakurtzeko. Gainera, etxe horretatik familia guztia pasatzen da, eta beraz, nik uste denok nahiko presente dugula OARSO BIDASOKO HITZA.

Hondarribia Futbol Elkarteko lehendakaria zara. Talde handiek foku handiak jasotzen dituzte, baina talde txikiagoei tokiko hedabideek babesa ematea beharrezkoa iruditzen al zaizu?

Bai, azken finean hor erronka handia dago. Sare sozialekin, adibidez, beti egin nahi dugu asko, baina ez gara dena iristen. Denbora eta gogoia behar dira, eta noski, baliabideak. Gertakari puntualak daudenean, adibidez aurreko larunbateko deialdia, beti eskertzen da tokiko hedabideen laguntza.

Zer nolako etorkizuna ikusten diozu HITZA-ri?

Haien herrian lan egiten duten kazetariak edukitzea, eta haien herria maite dutenak lanean egotea, nire ustez jada bada pausu garrantzitsu bat aurrera egiteko. Babestu beharreko proiektuak dira horrelakoak, eta hor herritarrok badugu erantzukizun bat. Aurrera jarraitzea eskatzen diot OARSO BIDASOKO HITZA-ri; ni behintzat oso pozik nago egiten duzuen lanagatik.

Beharrezkoa al da beraz, zure ustez, herriaren babesa?

Erabat. Nik behintzat nahiko nuke herritar guztiek haien aletxoak jartzea, baina ezin ditut besteen erabakiak hartu. Oso garrantzitsua da gure babesa, eta nire ustez ez da esfortzu handia. ■

OARSO BIDASOKO HITZAREN 1.000. ZENBAKIA

Euskaraz idatzitako **trilogia** historikoaren lehen zatia.

Zentsurari aurre eginez iraun duen emakume baten testigantza paregabea.

ALBERDANIA

MAITE LÓPEZ LAS HERAS

ZIRTAK SU
I. HASIERAN BAZEN HITZA



BERDINTASUNA

OARSO BIDASOKO HITZAREN 1.000 zenbakietan emakumeek jasaten duten zapalkuntzen berri eman du. Mugimendu feministaren indarraldia erabatekoa izan bada ere, gizonek emakumeak hiltzen, erasotzen, gutxietzen jarraitzen dute. Gizarte patriarkalean bizi gara.

Berdintasuna festetan ere bai. Hondarribian eta Irunen oraindik ez dago bermatua denek nahi duten eran Alardea bizitzeko eskubidea. Aurrera urratsak egin dira, baina ez nahikoak. Irudia 2022ko irailaren 8koa da, Jaizkibel konpainiarena.

Argazkia: Alaine Aranburu



LARRAÑAGA
PROIEKTUAK

ERREFORMA
OROKORRETAN
ETA BARNE
DEKORAZIOAN ADITUAK



www.larranaga-proiektuak.com

Talaia industriagunea P-1, 8. lokala. OIARTZUN - Tel.: 943 558 104



GORKA CORREYERO LLAMAS

IRUN



Ohitura bihurtu da astero HITZA irakurtzea Fagoaga Iza familian. Betidanik izan dute HITZA euren etxeke mahaian, eta ohitura hori izaten jarraitzen dute astero. Aldizkariko edukiak irakurtzeaz gain, denbora-pasek ere garrantzi handia dute haientzat, eta horiek elkarrekin egiten ahalegintzen dira.

Zer ekarpen egiten du HITZA-k zure egunerokoan?

Euskarazko tokiko informazioa jasotzeko aukera eskaintzen dit. Astekariko erreportajeak irakurtzen ditut ostiraleko, eta eguneroko tokian tokiko informazioa irakurtzeko ohitura ere badut.

Zergatik zara HITZAKide?

Aita HITZAKidea da, eta familian HITZA irakurtzeko ohitura dugu astero, hutsik egin gabe. Ez dakit noiz eta nola egin zen HITZAKide nire aita. Betidanik etxean izan dugu, eta egunero etxeke postontzira iristen zitzaiguneko oroitzapenak ditut. Gogoan dut aldizkari bilakatu zeneko garaia. Euskarazko tokiko hedabideak eta elkarteak laguntzeko egin zen HITZAKide aita, euskararen aldeko proiektuei bere aletxoak jartzeko.

AIORA FAGOAGA IZA HITZAKIDEA

«**HITZA irakurtzea ostiraletako plana da**»

Lehenengo urte haietako oroitzapenen bat al duzu?

Egunero irakurri izan dut HITZA. Egunkaririk astekaria bihurtzerainoko bide

horretan, nire aitak galdetu zidan ea ba ote nekien zergatik izan zen aldaketa hura. Hala ere, gustura irakurtzen jarraitzen dut. Trantsizio horri buruzko oroitzapen onak ditut, oso ondo gogoratzen dut. Ostiraletan, etxera heltzean lehenengo begirada ematen diot aldizkariari eta gero, denbora dudanean, arreta handiagoarekin irakurtzen ditut bertako edukiak. Orain badakit ostiraleroko zerbait egin behar dudala, postontzian begiratu ea aldizkaria iritsi den eta hura jaso. Ostiraletako plana da HITZA irakurtzea.

Aldizkaria irakurtzeaz gain, familian ohitura duzue astero denbora-pasak egiteko.

Bai, nik gurutzegrama eta hitz geizidunak egiten ditut. Zenbakiak ez ditut gustuko, eta hortaz, ez ditut sudokua egiten. Ez dugu denbora-pasak bidaltzeko ohiturarik, gure artean *pikatu* egiten gara eta listo. Guztiok batera egiten saiatzen gara, baina askotan ez dugu amaitzerik lortzen. Gaztelaniazko gurutzegramak ez ditugu egiten, eta HITZA-n horiek euskaraz egiteko aukera dugu.

Kemen Dantza Taldeko dantzaria zara. Zein da egun Irunen euskal kulturak duen egoera?

Eskerrak gu bezalako jendea dagoela Irunen, herritik herriarentzat egiten duela eta benetan sinesten duela horretan. Udalaren aldetik, salduta gaude Irunen. Euskarak eta euskal kulturak arnaguneak behar ditu, eta horretan gabiltza. Taldearen ahots handiena HITZA da, zuek zarete. Asko eskertzen dugu beti duzuen prestutasuna. Eskerrak oraindik ere gurasoek gurekin bat egiten duten, euren haurrek Irunen arnagune bat izan dezaten.

Euskarak eguneroko bultzada behar al du Irunen?

Euskal kultura bultzatzeaz gain, euskarak egunerokoan ere bultzada handia behar du Irunen. Ez du balio udalak Korrikan kilometro bat erosi eta Korrikako petoa jarrita 200 metro egitea. Egunerokoan euskaraz egin behar dugu eta erabilera sustatu behar dugu. Euskararen aldeko benetako jarrera izan behar dugu. ■

Madalen kalea, 2 beheka · Erretereria
 **MELANIA** *inmomelania@gmail.com*
943 053 642
www.inmobiliariamelania.com

 **txingudi aholkularitza**
 Finka-administratzailea
 Enpresa-aholkularitza eta orokorra

FISKALA | KONTABILITATEA | LANEKOA | FINKEN ADMINISTRAZIOA
ZIURTAGIRI DIGITALA | ERRENTA AITORPENA | AUTONOMOEN ALTA | KIT DIGITALA

Lamisingo Iturria 1, 3. solairua, 303. bulegoa. IRUN
Tel.: 943119758 - 943544753 Mugik.: 678578168 - 670439131



HARRERA

Harrera herria gara. Hori jaso du OARSO BIDASOKO HITZAK bere 1.000 zenbakietan. Orduetik hona herrien eta hirien biztanleen nolakotasuna asko aldatu da, baina beti tokian tokiko erakunde eta eragileak saiatu dira bertara bizitzera etorri direnei harrera duina ematen. Baita bidean izan diren migranteei beharrezkoa zuten laguntza ematen ere. Laguntza horren ikur Irungo Harrera Sarea izan da. Bidean ziren milaka migranteri eman die laguntza boluntarioen sareak. Irudia 2021eko maiatzean egin zuten manifestazio batekoa da.

Argazkia: Ikerne Zarate



**PIO
BAROJA
IRUN**



MATRIKULA

**BATXILERGO
ESKAITZA**
ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ARTE PLASTIKOAK
BATXILERGO OROKORRA
D / A ereduak

BERTAN edo ONLINE
(eskuta txanda aldeztu aurretik,
telefonoz)

Ekainaren 15etik 30era

👁️ + info
piobaroja.eus
943 899 297

**EGUNEKO
ZEIN
GAUEKO
IKASKETAK**

IKERNE ZARATE GARTZIARENA
ERRETERIA-ORERETA



Euskalgintzan eta hortaz, herrigintzan, buru-belarri ari da Maritxu Oartzun Minguez oreretarra; Xenpelar AEK euskaltegian irakasle da. Ezinbesteko jo du HITZA, haren esanetan gertaera garrantzitsuen ondorengo horretan izaten delako, herrian gertatzen denari balioa emanez.

Zein arrazoik eraman zintuzten HITZA-kide izatera?

Beti kontsumitu izan dut HITZA, eta euskaltegitik etorri zitzaigun eskaintza ondoren. Oso-oso beharrezkoa ikusten dut tokiko hedabidea etxean jaso ahal izateko eta nahieran irakurri ahal izateko. Oso gustura nago.

Zein ekarpen egiten du HITZA-k?

Batez ere hitza ematen die gure inguruko herriei, ohiko hedabideez gain badelako bertakoa edo inguruan gertatzen denari buruz jakiteko iturri garrantzitsu bat, zer gertatzen den inguruko kaleetan, bertako herritarrekin, zein iritzi duten... Ingurukoaren berri, gertukoaren berri jakiteko ezinbesteko hedabidea dugula uste dut.

Euskalgintzan ari zara lanean, irakasle zara. Euskaltegian, ikasleekin HITZA erabiltzen duzue saioetan, ezta?

Bai, hala da. Batez ere gurekin edo Oretarekin lotutako gaiak jorratu direla baldin badakigu, orain De Cyne Reynarekin gertatu den bezala, saiatzen gara horiek klaseratzen. Gertatzen den horren berri gertutik ezagutzeko

MARITXU OIARTZUN MINGUEZ
HITZAKIDEA

«**Ezinbestekoa da HITZA ingurukoaren berri jakiteko**»

modurik egokiena eta naturalena da. HITZA-k, gainera, egundoko ekarpena egiten dio hizkuntz normalizazioari. Irakurri ahal izatea zure ondoko den-dariari gertatutakoa, edota herritar baten duen iritzia euskaraz, modu garbi eta natural batean egundoko altxorra da; eguneroko gaien inguruan ari garelako, eta ikasteko behintzat zer hobe gertukoa eta ezagutzen duguna baino. **Irakurterraza al da ikasleentzat HITZA,**

edo kezurik jaso duzu zaila egiten zaielako?

Kexatzea librea da. Batzuk zailagoak izan badaitezke ere, lerroburu esanguratsuak izaten dira eta formatua ere lagungarri izatean da. Agian erreportaje edo artikuluguztia ez bada ere, pasarte txikiak edo lerroburuak klaseratzeko egokia da.

Paperekoa edo Interneta?

Erromantizismotik, paperean beti; liburuak, egunkariak... paperean irakurtzen ditut. Egia da egunerokoak jaten gaituela, eta digitala edukitzea ere ondo dator. Ni beti geldituko naiz paperarekin, inoiz itzalaldia errepikatzen bada ere.

Zergatik izan behar du HITZAKide oraindik urratsa egin ez duenak?

Inguru hurbilean gertatzen den horren gainean jakin nahi baduzu hedabide egokiena delako. Azkenean *Berria*-k eskainiko dizkigu berri orokorragoak, noizbehinka gertuagokoak, baina HITZA-k eskaintzen diguna da, hemen, aldameneko kalean, ondoko herrian, pareko bizilagunari gertatzen zaionaren berri; eta euskara ikasten ari direnei zer hobe gertukoak eta egunerokoak eskura jartzea baino. Hortaz, dena interesgarria, dena gertukoa, eta dena beharrezkoa HITZA-k eskaintzen diguna. Gertaera garrantzitsuen ondorengo horretan egoten da HITZA, herrian gertatzen denari balioa ematen dio.

Zerbait sumatzen duzu faltan HITZA-n?

Herritarrekin inkestak egitea haien iritzia eskatuta gai zehatzen inguruan. ■

OARSO BIDASOKO HITZAREN 1.000. ZENBAKIA

PENTSIODUNAK

Pentsiodunen mugimendua azken urteetako aktiboena izan da. Haien-tzako pentsio duinak eskatu dituzte Oarsoaldeko Duintasunak eta Txin-gudiko pentsiodunek. Baina askoz harago joan dira: zaintza duina, osa-sun sistema publiko kalitatezkoa eta bestelako asko aldarrikatu dituzte, nekaezin, kalera atera diren guztietan. HITZaren 1.000 zenbakietan zehar mugimendu eraginkorrenetakoa izan da pentsiodunena.

Irudia 2019ko apirilekoa da. Duintasunak elkarretaratzea egin zuen Erretereria-Oreretako Herriko Plazan.

Argazkia: Ikerne Zarate





Orereta ikastola
AURRERAI



**EGUNERO BERRI.
EGUNERO HERRI.**

www.oreretaikastola.eus



URKO ETXEBESTE PETRIRENA

LEZO



Dantzari betanoek osatzen dute Lezoko Dantzazaleak taldea. Herrian festak diren bakoitzean euren ekarpena egiten dute, izan mendekosteak, santakruzak, San Tomas festa, edo inauteriak. Bestelako data berezietan ere egiten dituzte aktuzioak. Gurutze Alberdi taldearen sortzailea da. Egiten dituzten emanaldi guztien berri ematen dio OARSO BIDASOKO HITZA-ri. Hedabideak herrietan dituen laguntzaile edo konplize sarearen eredu da Alberdi.

Zergatik zarete etxean HITZAKide?

Hasieratik gara HITZAKide. Argi genuen euskararen alde, herriaren alde egitea dela HITZA-ren harpidedun izatea, eta ez genuen zalantzarik izan. Beharrezkoa zela uste genuen.

Zer abantaila ditu zure ustez HITZAREN harpidedun izateak?

Niretzat abantaila asko ditu. Nire kasuan, adibidez, nire euskara maila ez da oso altua. Aritzen naiz, bai, baina batzuetan ez nahi bezala. Beraz, HITZA irakurtzeak asko laguntzen nau hizkuntzarekin aurrera urratsak egiten, nire euskara maila hobetu eta mingaina gehiago askatzeko. Gainera, herriko informazioa ematen du.

Lezoko Dantzazaleak taldeko kide zara. Fidel-fidel bidaltzen duzue HITZA-ra egiten duzuen guztia...

Oso gustura egiten dugu hori. HITZA-k beti argitaratzen ditu egiten ditugunak. Guk badakigu zer egiten dugun,

GURUTZE ALBERDI DADEBAT HITZAKIDEA

«**HITZA-k beti argitaratzen ditu egiten ditugunak**»

baina garrantzitsua iruditzen zaigu herriak eta herritarrek jakitea zertan ari garen.

Dantzari betanoak zarete...

Hamazazpi urte daramatzagu martxan, eta bai, Lezoko Dantzazaleak-eko partaide gehienak adi jakin batetik gorakoak gara. Lezoko festa guztietan parte hartzen saiatzen gara, eta betano izan arren, sekulako ilusioarekin ari gara. Nik erakusten dizkiet dantzak

taldekideei, 60 urtekoak, 70ekoak, edo 80 urtekoak dauzkagu taldean. Badago erreleboa, gainera. Plazetan dantza egiteko aukerarik ez zela uste izan nuen, eta taldea sortzeari ekin nion. Festa giroan jendea dantzatzen jartzea da gure helburua, berdin du ondo dantzatu ala ez. Plazako dantzen ohitura eta gure kultura ez dira galdu behar. Dentzatzat da dantza.

Zer du Lezok dantzarekin?

Sekulako tradizioa. Dantza taldeak daude, bakarkako lehiaketetan sekulako emaitzak lortzen dituzte bertakoek, gu ere bagaude. Herri txikia da, baina oso berezia. Berez oreretarra naiz, 30 urte daramatzat Lezon bizitzen. Baina dantzak herriari sekulako bizitza ematen dio.

Zuentzat herria egitea al da dantzaren aritzea?

Lezokoentzat, herriarentzat sortu genuen Lezoko Dantzazaleak. Uste dut helburu hori betetzen ari garela.

Data berezirik dantzarako?

Maiatzean Tomas Garbizu Musika Eskolako bandarekin saio bat egiten dugu, mendekosteetan. Egun berezia izaten da hori guretzat, oso gustuko dugu. Baina esan dudana bezala, Lezon festak non, Lezoko Dantzazaleak han.

Taldekide guztiak boluntarioak zarete. Baina baduzue lana, ezta?

Hala da. Hemen inork ez du ezer kobratzen. Baina lana badago: emanaldiak antolatzea, jantziak, entseguak... Txikitari ikasi nituen euskal dantzak, eta inork ez zidan ezer kobratu. Hemen ere hala egiten dugu, dena borondatez. ■

OARSO BIDASOKO HITZAREN 1.000. ZENBAKIA



MEMORIA

1936ko gerraren, frankismoaren, indar polizial eta parapolizialen, eta indarkeriaren biktimek aitortzarako tarte asko izan dituzte OARSO BIDASOKO HITZAK egin duen ia hamabost uteko bidean. Aitortza asko, erreparaziorako desioa ere bai, baina justizia gutxi. Herri guztietan izan dira memoria historikoa berreskuratu eta zabaltzeko egitasmoak.

Irudia 2019ko urrikoa da. Etxetxo Lezoko Memoria Historiko taldeak Francoren indarrek hil zituzten Etxetxo baserriko kideak omendu zituen.

Argazkia: Ikerne Zarate

- Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote eta familia terapia


JAKOBE PSIKOTERAPIA
 620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
 Psikologoa GZ 1579
 Xenpelar kalea 6, solairuartera,
 5. bulegoa. Erretereria
www.jakobepsikoterapia.com


LEZO AGENDA *Kulturala*

ANTZERKIA

17





Maitzak 17, igandea, 19:30ean. Gezala Auditoriuma.

DYSPHORIA

Shock egoeran dago. Hamasei urteko alabak aitortu berri dio ez dela neska bat; mutil bat dela. Ez da gehiago Alejandra izango, benetan dena izango da: Alex. Terapia, laguntza taldeak... ezer ez da nahikoa alaba jada ez dela bere alaba izango onartzen laguntzeko.

Hitrión Teatro. Sarrera 8 €. Gaztelaniaz


LEIRE PERLINES APALATEGI

OIARTZUN



**ENEKO SALABERRIA
GONZALEZ**
HITZAKIDEA

«Txikiengan zentratzen den hedabide bat da HITZA»

zio enpresa bat daukat, Dixidu. Hala ere, paraleloki argitaletxe bat sortzea erabaki genuen beste zerbitzu bat emate aldera. Duela sei urte izan zen

hori, eta horrek forma autonomo bat hartu du.

Zerk bultzatuta sortu zenuten argitaletxea? Akaso horretarako behar bat sentitu zenuten?

Esan daiteke behar bat izan dela, baina kontua da nik nire lan ibilbidean jasotako esperientziarekin ikusten nuela bazeudela zenbait lan edo proposamen literario kaxoi batean gordeta geratzen zirenak argirik ikusi gabe.

Horri argi bat emate aldera eta ikusita erraza dela liburu bat zerotik eskutan izan arteko bide hori egitea, saiakera hori egin genuen.

Edukia argitaratzeko orduan baduzue marra gorririk?

Bai, hizkuntza da gure marra gorrietako bat. Dena euskaraz argitaratzen dugu. Are, proposamenen bat jaso izan dugunean eta korreoa gaztelania hutsez idatzita baldin badago, nahiz eta edukia euskaraz izan, horrek zuzenean gure ezezkoa jasotzen du. Zerbaitetan erradikal jarri bagara, horretan izan da.

Gainerakoan, normalean Xabik landu nahi duen gai baten inguruko proiektua sortzen dugu guretik, edota aurretik erdal hizkuntza batean sortuta dagoen zerbait gurera ekarri eta euskaratu egiten dugu.

Osasuntsu al dago euskal literatura?

Argitaletxe pila bat daude, baina irakurle bezala egia da bizpahiru argitaletxe handiekin gogoratzen garela. Txiki asko daude, eta lan oso polita egiten dute.

Txikiak fokua jartzen dute produktu ez hain salgarriagoetan, baina bai funtsean interes gehiago daukatenetan, eta uste dut Euskal Herrian lan oso polita egiten ari dela alde horretatik. Noski, hala jarraitzea espero dut.

Zer ematen dio Oiartzuni 1545 argitaletxeak?

Kontua da guk argitaletxeaz gain kultur elkarte bat ere badaukagula izen beraren azpian, 1545, eta guk egiten duguna da literaturaren inguruko proposamen asko herrira ekarri urtean zehar.

Bestalde, saiatzen gara liburu bat aurkezten dugun bakoitzean herrian zerbait egiten liburu horrekin lotuta. ■

Dixidu diseinu grafikoan egiten du lan Eneko Salaberria Gonzalezek, eta horretaz gain 1545 argitaletxea kudeatzen du Xabi anaiaarekin batera. Beste era batera ere defini daiteke oiartzuarrak: HITZAKide.

HITZAKide zara. Zerk bultzatuta?

Lehenagotik ere HITZAKide izandakoak ginen gustatzen zaigulako ahal den neurrian inguruko komertzio edota hedabideei esku bat botatzea.

Gainera, HITZA-ren kasuan trukean ere publizitatea jartzeko aukera ematen duenez, berriz ere HITZAKide egiteko garaia zela ikusi genuen.

Zein ekarpen egiten du HITZA-k?

Komunikabide bat izateaz gain eta bertako albisteak eskuragarri izateko aukera emateaz gain, uste dut badela hedabide txiki bat zentratzen dena txikiengan ere.

Hau da, komertzio edota eragile txikiengan ere arreta berezia jartzen duela esango nuke.

1545 argitaletxearen sortzaileetako bat zara.

Xabi anaia eta biok sortu genuen; anaia irakaslea da, eta nik komunika-

KABI IXO taberna
Mila esker kabi txiki honetan bidea egiten laguntzen gaituzuen guztioi.
Errazioak
Ogitartekoak
Entsaladak
Plater konbinatuak
Sandwichak
Hanbursesak
943·494256
Euskal Herria plaza
www.kabixotaberna.com

Aldabe Menda, 31 • 20301 IRUN
Elizalde Herri Eskola • 20180 OIARTZUN
943 61 88 39 / 615 79 05 10
@aunbxa.trikiti_eskola
Aunbxa Trikitixa Eskola
info@aunbxa.trikitieskola.com
inaki@aunbxa.trikitieskola.com
WWW.AUNTXATRIKITIESKOLA.COM

KULTURA

Pertsonen bizitzetan ezinbestekoa da kultura. Gure herrietan den kultur emaria izugarrikoa da, oso handia. Edozein kultur espresiotan badira Oarsoaldeko eta Bidasoko sortzaile asko eta indartsuak, hemen eta han sona handia dutenak. Baina badira ere bere txikitasunetik kulturaren bidez munduaren beste ikuskera bat zabaltzen saiatzen direnak.

Oiartzunen bereziki erabateko indarraldia izan du kulturak azken urteetan. Irudia 2019ko Kulturabirusa egitasmokoa da.

Argazkia: HITZA



Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com



URKO ETXEBESTE PETIRENA

PASAIA



Euskarazko tokiko hedabideen erraiak ondo asko ezagutzen ditu Iñaki Berrio Zabala pasaitarrak. *Lezoko Orratz!* herri aldizkariko langile izan zen, Oarso Telebistako kide ere bai, eta gainera, 2003an sortu zen OARSOALDEKO HITZA-n hainbat urtez kazetari izan zen. Erraiak ezagututa, ikuspegi kritikoa ere badu tokiko hedabideen barnerako begiradarekin, baita kanpoko faktoreek horietan zer eragin duten aztertzerakoan ere.

Zergatik zarete etxean HITZAren harpidedun?

Etxeok euskaraz bizi gara, euskaraz lan egiten dugu eta euskaraz ikasten dugu. Arraroa litzateke informazioa gatzelaniaz jaso nahi izatea, ezta? Eta bada beste arrazoi bat: HITZA kalitate handiko produktua dela uste dugu, eta horregatik gara harpidedun.

Zer funtzio betetzen du zuen ustez HITZAK?

Euskal unibertsoaren bozgorailua da. HITZA gabe propioa ez dugun kultura bat gailenduko litzateke komunikabideetan.

Pasaiari zehazki, zein ekarpen egiten dio hedabideak?

Barkatuko didazue, baina nahiko ezkor naiz gai horretan. Hedabide hegemonikoa izan beharko luke, kalitate handiko hedabidea baita, baina ez du lortu, inondik inora. Alderdi politiko abertzaleei esango nieke badela garaia begiak

IÑAKI BERRIO ZABALA HITZAKIDEA

« Euskal unibertsoaren bozgorailua da HITZA »

zabaldu eta euskarazko hedabideei bul-tzada erraldoia ematekoa. HITZAK etxe guztietara iritsi behar du. Ahalegin hori egin behar da euskarazko hedabideak etxe guztietara iristeko, euskararen normalizazioan benetan eragin nahi bada.

OARSOALDEKO HITZA-ko kazetari izan zinen, horren hastapenetan. Zer oroitzen dituzu orduko?

Hasi aurrekoa oso gogorra izan zen:

errepresioa, torturak... Proiektua kaleratzear zela etorri zen *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurkako polizia operazioa. Garai hartan Lezon nabilen, eta kolpe latza eman ziguten. Guardia Zibilek niretzat eredu ziren Xabier Alegria eta Luis Goia eraman zizkiguten.

Bestela, oso urte intentsuak izan ziren. Militantzia basatia. Lerro haue-tatik muxu bana lankide izan nituen guztiei, laguntza ematen aritu zinetenoi, eta batez ere Xabiri eta Luis Goia-ren familiari.

Gainera, aurretik, Lezoko Orratz! aldizkarian eta Oarso Telebistan ere izan zinen. Eskualdean euskarazko hedabideei dagokienez dena egiteko zegoen...

Garai haietara itzultzea ez litzateke kontu txarra. *Orratz!* bazen hegemonikoa Lezon. Herriko etxe, komertzio eta taberna guztietara iristen ginen, euskaldunak izan edo ez. Telebistaren kontua zailagoa zen, analogikoan egiten baikenuen lan. Motela eta oso garestia zen. Orain, esango nuke errazagoa litzatekeela proiektu hura berpiztea. Apustua nork egin faltako litzateke.

Erretereria-Oreteretan eta Pasaian ere aritu nintzen. Gora *Lau Haizetara*, gora *Branka* eta bere jendeak.

Oro har, zein funtzio betetzen dituzte euskarazko hedabideek zure ustez?

Komunitatea sortzen laguntzen dute, euskaraz bizi nahi dugun pertsonak konektatuz eta erreferenteak eskainiz. Euskaldunak bagara, zertarako jo erdaretara? ■

SALSAMENDI
www.gestoriasalsamendi.com **GESTORIA**
- AHOLKULARITZA - FISKAL ETA LABORALA -
- TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA
- AUTONOMOAK - ESKRITURAK
María Lezo, 5 . Erretereria. Tel.: 943 52 43 02

TXULOTXO
943 52 39 52
Donibane kalea, 71.
PASAI DONIBANE
contacto@restaurantetxulotxo.com



ONDAREA

Asko eta askotarikoak dira Oarsoaldeko eta Bidasoko kultur eta gizarte ondarea jaso, berreskuratu eta zabaltzen ari diren eragileak. Izan ginena, garenaren ondorio baita. Ez da erraza, ordea, ondare hori behar den guztiengana iristaraztea.

Bide horretan egin den jarduera esanguratsuenetako bat Pasaia Itsas Festibala da. Bi urtean behin egiten da, eta aurtegoa laugarrena da. Itsas ondarean fokua jarrita, Albaolak gidatzen duen eta hainbat erakundek laguntzen duten jaialdia erreferentzia da jada.

Argazkia: Imanol Saiz



OLHUI | IMFPB

Pasaia

Oinarrizko Lanbide Heziketako
Udal Institutua



Sukaldaritza eta
Jatetxe-arloa

Etxebizitzen
Mantentze-Lanak
(Iturgintza - Beroa)

**Aurrematrikulazio
epea zabalik
maiatzaren
4tik 22ra**

INFORMAZIOA: Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe. Pasaia.
T. 943 404894 • www.fpb-olh.pasaia.org • E-mail: olh-fpb@pasaia.net



OARSO BIDASOKO HITZAREN 1.000. ZENBAKIA

LEIRE PERLINES APALATEGI

OIARTZUN

Herriarekin elkarlanean aritzea gustatzen zaio Asier Gaston Aldezabal Kabitxo tabernako langileari. Taberna familiaren habia dela nabarmendu du, eta herritarrentzat ere hala izan dadin saiatzen dira. Bada, haren ustez, HITZA-k ere herria egiten du.

Zer ematen die HITZA-k komertzioei? Gertutasuna, esango nuke. Herri mailan zentratzen da, eskualdean hobeki esanda, txikian. Asko zaintzen du herritartasuna eta txikitasun hori.

Hedabide asko eta handiagoak ere badaude, baina HITZA bezalako hedabideek eskualdea ondo ezagutzeaz gain, herria zaintzen dute, eta horixe sortzen du, herritartasuna.

Noiztik zarete HITZA-ko harpide?

Kabitxon lanean hamalau urte daramatzagu, eta esango nuke HITZAKide izaten hamabi urte inguru daramatza-



**ASIER GASTON
ALDEZABAL
KABITXO TABERNA.
HITZAKIDEA.**

«**Herri mailan zentratzen da; gertutasuna ematen du**»

GORKA CORREYERO LLAMAS

IRUN

Lotura handia du Goieko garbiketarako produktuen eta sistemen enpresak HITZA-rekin. Hala esan du Xabier Mendiburu Lizarralde, enpresako bazkideak. Euskarak enpresan garrantzi handia du eguneroko jardunean haren esanetan. HITZA-ri esker tokiko albisteak euskaraz jasotzeko aukera dutela aipatu du, eta gainera, horren alde egitea haientzat onuragarria da.

HITZA aipatuz gero, zer oroitzapen dituzu?

HITZA sortu zenetik harpideduna naiz, eta Goieko sortu genuenetik egunkaria eta aldizkaria postontzian jaso izan ditugu beti. Goizero lau ale sartzen zizkiguten duela urte batzuk; orain, aldizkaria jasotzen jarraitzen dugu. Ez dugu HITZA ez den beste aldizkaririk jasotzen. Oraindik ere ohitura hori mantentzen dugu, eta espero dugu

gula, ia lanean hasi ginenetik alegia. Hasieratik egin ginen harpidedun; HITZA-tik egin ziguten lehen bisitan erabaki genuen HITZAKide izatea, eta hala jarraitzen dugu.

Zer eskaintzen du Kabitxok?

Kabitxo gure habi txikia da, familiarin kudeatzen duguna. Oihana, alaba eta ni aritzen gara, eta atzetik gure semea ere etorriko da. Plater konbinatueta, ogitartekoetan, hanburgesetan eta gisa horretako otorduetan zentratzen den taberna da finean, herri mailan gazteekin edo Intxixu Trailekin-eta gauzak egiten saiatzen dena. Herrian esku bat botatzen saiatzen gara.

Astearteetan izan ezik, gainerako egun guztietan irekitzen dugu, eta astelehenetan ez ditugu afariak ematen. Etxeko janariarekin egiten dugu lan, eta hori da gure indargunea. Kabitxon herritarrek jaten duten guztia etxean egindakoa da.

Erreserbak egiteko aukera ere badago Kabitxora bertara gerturatuta, edo 943 49 42 56 zenbakira deituta. ■

hala izaten jarraitzea. Nik gero eta guxtiago irakurtzen dut, baina ostiraletan saiatzen naiz aldizkariko edukiak irakurtzen.

Tokiko hedabideek garrantzia izaten jarraitzen al dute?

Gureganako hainbesteko kontrola dute, non ez dakigun noraino kontrolatuta gauden. Hainbeste modernitatearen ondorioz, ez dakit nortasuna galtzen ari ote garen. Nik uste dut dena oso orokortuta dagoela, baina tokiko hedabideak babestu behar dira. Haien alde egin behar da.

Zer ekarpen egiten dio HITZA-k enpresari?

Zonaldean gertatzen diren gertaeren berri ematen digu. Pasaia Itsas Festivala, Behobia-Donostia lasterketa, edo bestelako ekitaldi bereziak zein jaiak antolatzen dituztenean mugimendua sortzen du. Guk sortutako mugimendua hori asko eskertzen dugu. Gehienbat festengatik lan egiten dugu, eta HITZA-k enpresari oihartzuna ematen eta banaketak egiten asko laguntzen dio. ■

**XABIER
MENDIBURU
LIZARRALDE
GOIEKO. HITZAKIDEA.**

«**Tokiko hedabideak babestu behar dira**»



Adi!

Irudi honek esan nahi du iragarle honek HITZA babesten duela urtero bere aletxoak jarritz.

Hori bakarrik eta hori guztia!

1.000 esker HITZAKIDE IRAGARLE guztiei!

Errepikaezina da zenbaki bakoitza

HITZAren astekarian lantzen den eduki bakoitza bakarra da. Ez du inork, inoiz, halakorik egingo. Lantalde oso baten ahalegina dago horren guztiaren atzean.

ERREDAKZIOA



CRISTOBAL GAMON INSTITUTUA
ZUREKIN BATERA GOAZ!
GURE ESKOLA PUBLIKO ETA GERTUKOA

>> Esnabide z/g, Erreterria
cristobalgamonbhi.hezkuntza.net/eu/
943 899 441

Ikarrizketak, erreportajeak, albisteak, kronikak, ikus-entzunezkoak... Faktoria txiki bat da OARSO BIDASOKO HITZA. Euskarazko edukien fabrika, tokiko informazio, ahots eta iritziekin. Horrek denak lan antolatu eta landu du, ordea. Irizpide eta balio zehatzetan oinarritutako ekinbidea, betiere herrietako errealitatea jaso, eta herritarren artean zabaltzeko helburuarekin. Gero, bakoitzak jasotako hori erabil dezala nahi edo behar duen bezala.

Esku artean duzun astekaria bezalako beste 999 ditu eginak OARSO BIDASOKO HITZA-k. Aldizkari bakoitza bakarra da. Izan daiteke aurpegiak edo gaiak errepikatzea, baina eduki alde-tik zenbaki bakoitza errepikaezina da. Hori horrela izan dadin antolaketa eredu bati jarraiki lanean den profesional talde bat dago. Astekariari eta eguneroko Interneteko emariari eustea eta zabaltzea da lantalde horren zeregina.

Misioa ahaztu gabe: ahalik eta jende gehien euskarazko tokiko informazioa irakurtzen edo ikus-entzuten jartzea.

Astekariari dagokionez, beti gai nagusi bat izaten du. Zer egin lantaldeak erabakitzen du; batzuetan egunerokoari hertsiki lotutako gaiak lantzen dira; beste batzuetan, ordea, interesgarriak izan arren azkartasunik behar ez dutenak jorratzen dira, izan erreportaje, edo elkarrizketa bidez. Gai nagusi horietako bakoitzak bere bideo propioa izaten du. Gainera, astekari bakoitzean Oarsoaldeko lau herriek eta Irunek nahiz Hondarribiak orrialde propioak dituzte, HITZA-rentzat inportantea baita gai handiak lantzea, baita herrietako txikiagoak jasotzea ere. Kolaboratzaileen iritzia, ilustrazioak, argazkiak, denbora-pasak, agenda, zozketak... 28 orrialde bete-bete doaz astero; zenbaki bereziak ere egiten dira, orrialde kopuru horretatik harago doazenak.

Behin edukiak lantzeko kontaktuak egin, herritarren hitzak jaso, eta horiek astekariaren maketetara eramanda, diseinu arduradunak den-dena txukundu, orrialde horien zuzenketa egin, eta inprentara bidaltzen da astekaria. Ostiraletan jasotzen dute harpidedunek aldizkaria; inprentara, ordea, asteazken arratsaldetan bidaltzen da. Oñatiko Gertu inprimategian egiten da aldizkaria euskarri digitaletik eskukora eramateko magia. Ostiral goizetan, goizean goiz, banatzaileek harpidedunen postontzietan uzten dute aldizkaria.

Urteko, 47 astekari egiten ditu OARSO BIDASOKO HITZA-k. Beraz, eguzkiari bira eman bitartean euskarazko tokiko edukiekin 1.316 orrialde publikatzen ditu gutxienez hedabideak. Horiek egiteko, hainbat laguneko lantaldea du kazetari, diseinu arduradun, ikus-entzunezkoen sortzaile, komertzial, kudeatzaile eta sustapen langileak osatua. CIES neurketen arabera, 16.000 irakurle ditu astean zehar aldizkariak.

Interneten, egunkaria

Osagarri oso indartsuak ditu OARSO BIDASOKO HITZA-ren astekariak. Interneteko webguneak. Bi ditu: Irungo eta Hondarribiko informazioa ematen duen *bidasoa.hitza.eus*; eta Oarsoalde-

OLAGARRO KULTUR ELKARTEA

1000 esker euskararen alde egindako lanagatik!

ko lau herrien txoko den *oarsoaldea*. *hitza.eus*. Aldizkaria osatzen, eta aldi berean webgune horietako atal guztiak elikatzen izaten dira kazetariak egunero-egunero. Egunkari antzekoak dira webgune horiek, unean uneko informazioa ematen dute albisteekin, eta horien barruan izaten diren argazki galeria eta bideoekin. Izan ere, webguneetan hasiera batean testu ziren horiek, egun, osagarri beteta daude, albistea gertatu eta HITZA-k jaso dituen horiek ahalik eta erakargarri izan daitezten.

Egiten duenaren eragina aztertzeko datuak biltzen dira. Horien arabera, 2025. urtean, ia 400.000 bisitari izan zituzten Bidasoko eta Oarsoaldeko atariak. Bisita horien batez besteko denbora tarte ere badakigu zein den: hiru minutu ingurukoa. Bisita horien %73,5 sakelako telefonoetatik iristen da, gaintzekoa ordenadoreetatik; 2024an, adibidez, gailu mugikorretatik jasotako bisiten zenbatekoa %57koa izan zen, eta ordenadoreetatik iritsi zireneka %43koa.

Interneten egiten diren albisteetatik gehienak sare sozialetan zabaltzen ditu hedabideak. Facebook, X, Instagram eta Youtube plataformen sareak baliatzen ditu HITZA-k eduki horiek are gehiago zabaltzeko, eta herritar gehiagoraino iristeko.

Sare sozial horietan guztietan 30.000 jarraitzaile ditugu. Gainera, Telegram eta WhatsApp kanalak ere baditugu, eta horietan egunero-egunero zabaltzen dira eguneko eduki interesgarrienak, baita posta elektronikoz (astero) ere. ■



Oñatiko Gertu inprimategian egiten da HITZAren astekaria. I. Saiz

www.pachecoizeta.com
943 49 18 68
MAMUT
merkatalgunea
Oiartzun

Pacheco Izeta
 Loredenda

Mila ale, mila zorion!

GURE PROIEKTUAREN GILTZA:
KONFIANTZA

943 5112 33
 secretaria.r@corazonistas.com

SARRASO CORAZON HASTETXEA
TELLERI-ALDE ERRENTERIA

oiartzun
autoeskola

Landetxe enparantza, 4 behea. OIARTZUN
 943 49 40 95 - 676 32 28 69
 www.oiartzunautoeskola.com
 oiartzun@yahoo.es

Gurean, gida baimena euskaraz

OARSO BIDASOKO HITZA
Beste 1.000
aleren bila!

eragin
LAB

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

OARSO BIDASOKO HITZAREN 1.000. ZENBAKIA



labur.eus/OBereiten

Bideo guztiak ikusteko jarraitu QRa.



Euskararentzako arnagune handi bat da HITZA, eta euskarak behar duen espazio hori ziurtatzen du»

LUIX MITXELENA

AKTOREA. OIARTZUN.



Gure lanari beti eman dio babes a HITZA-k; beti eskuzabal jokatu duzue gurekin»

LIERNI FRESNEO

ANTZERKIGILEA. LEZO.



Euskarazko hedabide erreferente bilakatu da HITZA Irun eta Hondarribian, ezinbestekoa»

KOLDO NAUSIA

ANTXETA IRRATIKO KAZETARIA.



Herriko eta inguruko informazioa jasotzeko modu eder bat izan da HITZA»

NEKANE MARTIARENA

ABARAXKA LUDOTEKA. OIARTZUN.



Herri egitasmoentzako erakusleihu ederra da HITZA. Euskarari sekulako laguntza eman dio»

JOXE MIKEL GARMENDIA

EUSKALTZALEA. LEZO.



AEK-ko klaseetan tokiko hedabide euskaldunek egiten duzuen ekarpen handi hori baliatzen dugu»

IDOIA GENUA

AEK-KO IRAKASLEA. IRUN.



Herrira begirako medio bakarra da HITZA; pentsatzen duguna aurrera ateratzeko aukera ematen digu»

IXIAR GOIENETXEA

BIXI-BIXI ELKARTEA. DONIBANE.



Herriko bizitzaren ispilu bat da HITZA; sekulako ekarpena egiten dio herrigintzari, herriari»

OLATZ ARBELAITZ

'PUNTUEUS' FUNDAZIOAREN
LEHENDAKARIA. ERRETERIA-ORERETA.



HITZA ostiralero etxeko buzoian jaso eta lasai ederrean irakurtzea satisfazio handia da niretzat»

KOTE GUEVARA

LIBURUZAIN OHIA. HONDARRIBIA.



Pasaian komunitate bat indartzeko tresna egokia izan da HITZA; gauza txikien handitasuna erakutsi diguzue»

XABIER AGOTE

ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIAREN
LEHENDAKARIA. PASAIA.



Oarsoaldea batzeko eta euskara indartzeko tresna izan da HITZA; komunitatea kohesionatzen du»

MIKEL AZKARATE

LAU HAIZETARA EUSKALTZALEON
TOPAGUNEA. ERRETERIA-ORERETA.



Oso gertuko kazetaritza egiten duzue; herriko errealitatearen berri edukitzea oso eskertzekoa da»

LEIRE ETXAIDE

BOTIKA AGROALDEA. HONDARRIBIA.

HITZA-ko kolaboratzaile izandakoa da, besteak beste, Axun Ertzibengoa Aizpiolea. Baina, ez hori bakarrik, zerrenda luze batekin definitu baitaiteke oreretarraren jarduna. Kazetaria da, baita euskaltzalea ere, eta Errenteria-Oreretako *Lau Haizetara* herri aldizkarian aritutakoa ere bada, bai eta *Euskaldunon Egunkaria*-n ere, 2003an indarrez itxi zuten arte. Beraz, ongi asko daki zer den tokiko euskarazko kazetaritza, baita euskaratik herrigintzan aritzea ere. Gainera, azken urteetan bere sortzaile edo idazle aldeari bultzada eman dio, eta besteak beste, 2026ko Mariasun Landa sarietan *Emakumeen begirada* saria irabazi du Silvi Vesga Silvari buruz egindako *Musika-doinuak datoz Galtzarabordatik* lanagatik.

Zure ustez, zein ekarpen egin dio HITZA-k herriei, herritarrei eta herrigintzari?

Uste dut ekarpen bat baino gehiago egiten dizkiola HITZA-k herrigintzari.

Batetik, herritar moduan esango

AXUN ERTZIBENGOA AIZPIOLEA KAZETARI EUSKALTZALEA

«HITZA zaindu beharreko altxor bat da»

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

ERRETERIA-ORERETA

nuke inguruko informazioa ematen digula. Gaur egun Internet bidez munduko beste puntan gertatzen dena oso erraz jakin daiteke, eta gauza bera gertatzen da sare sozialekin ere. Informazioa kontsumitzeko modua asko al-

datu da, kasik bakoitzak erabakitzen du zeren inguruan informatu nahi duen eta zeri buruz ez, baina anabasa horren guztiaren erdian badaukagu erreferentziatzako produktu bat gure inguruan gertatzen dena kontatzen duena, eta zero kilometroko informazioa ematen diguna herritarroi. Hori da, nire ustez, HITZA.

Eragileei dagokienez, bestalde, esango nuke plaza bat ematen diela hedabideak herrietan diren elkarte eta taldeei. HITZA-k lekua egiten die beste leku batzuetan tokirik izango ez luketen edukiei eta sorkuntzei.

Finean, herritarroi bertako informazioa ematen digu, eragileentzat plaza da, eta hori guztia euskaraz ematen digu. Iruditzen zait erreferente garrantzitsua dela eta euskararen inguruan komunitate sortzaile ere bada.

Zein oroitzapen dituzu HITZA-ren inguruan?

HITZA iritsi zen gure etxera natural-natural eta hasieratik, baina bidea ez da zen hutsetik hasi. Testuinguru bat

Garbidasoa

GARBIKETA ZERBITZUAK

Auzo erkidegoak - Enpresak - Garajeak - Obra Amaiera



646 667 914

garbidasoa@gmail.com

iparaseguroak@iparaseguroak.com

IPAR

ASEGUROAK

Nafarroa etorbidea, 75 - behea
Errenteria. Tel.: 943 34 11 27

Mila une, mila zorion!

FICOBA



dauka HITZA gure etxera iritsi zeneko bideak, aurreko bide bat dago.

Testuingurua 2003koa da, *Egunkaria*-ren itxieraren testuinguru hori; hor sortzen da lehenik eta behin Oarsoaldeko Hitza. Momentu horretan

« Plaza bat ematen die OARSO BIDASOKO HITZA-k herrietan diren elkarte eta taldeei »

« Hitz batean esango nuke gertutasuna dela HITZA, horixe bera ematen dit niri »

dagoeneko bazegoen nahi eta gogo bat tokiko informazio bat aterpe baten pean sartzeko, eta egosten ari zen nola egin. Uste dut *Egunkaria*-ren itxierak ekarri zuela elkartasun uholde bat,

babesa, eta uste dut horrek guztiak ere azkartu egin zuela euskarazko eta eskualdeko hedabidea sortzeko prozesua.

Hortaz, kasik aldi berean sortu ziren *Berrria* alde batetik, eta bestetik aterpe handi horren pean eskualdez eskualde hainbat tokitan bakoitzak bere ezaugarriak izanda, HITZA.

Hala ere, badago bide bat aurretik eginda, eta hori da nolabait *Lau Haizetara* aldizkariak egindakoa Errenteria-Oreteretan. 1990eko hamarkadan sortu zen, eta egin zuen bere lekua herrian auzoetako albisteak emanez, kultur eragileei tokia eginez [Pasaia *Branka* eta Lezoko *Orratz!* aldizkariak, *Lau Haizetara*-k Oreteretan bezala, herri horietako tokiko informazioa ematen zuten hilabetekariak ziren].

Nire kasuan konkretuki *Lau Haizetara*-ko erredakzioko kide izaten hasi nintzen bertan, eta gero kolaboratzaile izaten jarraitu nuen. Guretzat *Lau Haizetara* zen gure proiektua, eta



2003an OARSOALDEKO HITZA sortu zenean eta *Lau Haizetara* desagertu, HITZA-k hartu zuen bere lekua oso modu naturalean.

Zer da zuretzat HITZA? Zer eman dizu?

Nik hitz batean esango nuke gertutasuna dela HITZA, eta horixe bera ematen dit niri ere. Bertakoa kontatzen dit, bertakoez kontatzen didazue, bertako hizkuntzan, eta hori ez dit ematen beste inork, HITZA-k bakarrik. Zaindu beharreko altxor bat da. ■

ZORIONAK
HITZA!

Beste hainbeste izan
daitezela elkarrekin!



IKASTOLAK



Euskaraz eta tokikoa, baina zertarako?

Astekariaren 1.000. zenbakiaren harira mahai-ingurua antolatu du hedabideak Lezoko Gezalan gaurko. Tokiko euskarazko hedabideek zertan dabiltzan azalduko dute.

ERREDAKZIOA



ZUBILLAGA
aholkularitza - gestoria

- FISKALA • LANA • KONTABILITATEA • ZIRKULAZIOA •
- ESKRITURAK, HERENTZIAK • ASEGURROAK •

Aialde Kalea 3, behea - 20180 Oiartzun.
943 49 18 92 - asesoria@asesoriazubillaga.eus

THE MISTER
MOBILE



943 046 324

Salmenta eta zerbitzua




ONDU
FISIOTERAPIA

📍 Foru Plaza 19, Erreterria 📞 603 108 997
✉ ondufisioterapia@gmail.com
🌐 www.ondufisioterapia.com 📷 @ondufisioterapia

Nor dago beste aldean? Zalan-tza hori izaten dute hedabideek maiz. Jakina da, OARSO BIDASOKO HITZA-ren kasuan behintzat, harpidedunen zerrenda zehatz bat duela, egunero-egunero Interneteko jarraitzaile kopuru handi bat duela, baita sare sozialetan ere. Baina nola izan gaitezke gehiago? Eta are: zein funtzio betetzen dute egun tokiko euskarazko hedabideek? Galdera horiei balizko erantzuna emateko mahai-ingurua antolatu du gaurko (hilak 15, ostirala) OARSO BIDASOKO HITZA-k, 18:00etan, Lezoko Gezala Auditoriumean. Ekitaldi irekia da, doan, eta edonor joan daiteke hara.

Oarsoaldeko eta Bidasoko euskarazko tokiko hedabideetako ordezkariak saiatuko dira galdera horiek erantzuten. Gezalan izango dira Antxeta Irratiko Aitziber Zapirain Etxaniz, Oiartzun Irratiko Alazne Etxeberria Oiartzabal, eta HITZA-ko Urko Etxebeste Petirena. Solasaldia gidatzen etxeko bat, Ur-tzi Urkizu Adrian kazetari eta idazle lezoarra.

Ekitaldia galdera batzuk erantzuteko unea baino askoz gehiago izango da. Izan ere, 1.000. zenbakiaren aitzakiarekin HITZA-ren komunitatea batzeko eta elkar ezagutzeko aukera bezala ikusi du hedabideak Lezoko hitzordua. Hala, ordubete ingurukoa izango den mintzaldiaren ondotik, mokadutxoa eta tragoska hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek, lasai eta goxo. Komunitatean. Euskarazko hedabideei bultzada eman ondotik, barrenak gozatzeko aukera ederra. ■

Magdalena
Gozotegia



Tel.: 943 52 50 85
Donostia kalea 5, behea.
Erreterria

Bizi Ondo
KIROPRAKTIKOAK

Hormona arazoak
Buruko mina
Migrainak
Bizkarreko mina
Ziatika
Akufenok
Estresa

Fabio Alves Dokorea
943 10 80 91 - 688 73 11 16
biziondo.secretaria@gmail.com
@biziondo_kiopraktikoak 



Zenbakiz zenbaki, tokiko informazioa zabalduz,
euskaraz komunitatea sortuz, txikia
handitasunez zainduz egin duzue bidea.

Hori bakarrik, eta hori guztia.



ORARSO BIDASOKO HITZAREN 1.000. ZENBAKIA

Zorionak eta 1.000 esker!

JOKIN OTEGI
EGIBAR
HITZAKIDEA
izan da saritua!

egin zaitez
HITZAkidea



Irudian ezkerretik hasita Irati Argoitia Iñurrita (Oarso Bidasoko HITZAren kudeatzailea), Jokin Otegi Egibar (saritutako HITZAKIDEA), Iñaki Elortegi Zamorano (Laboral Kutxako Irun-Colon bulegoko zuzendaria), Karmele Segura Azkarate (Laboral Kutxako komunikazio lokala) eta Urko Etxebeste Petrirena (Oarso Bidasoko HITZAren zuzendaria)

Hori bakarrik eta hori guztia!

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Albistur

Mantentze eta berritze-lanak

ALBISTUR ERAIKUNTZAK

Proiektu eta berrikuntza orokorrak - Arreta pertsonalizatua

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea . **SUKALDEEN ESPOSIZIOA:** Biteri kalea 2, behea
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es



#tokikoabetihobe



errenkoalde

merkataritza, ostalaritza, eta zerbitzu elkarte
asociación de comercio, hostelería y servicios

BEHEKO KALEA, 2 BEHEA - ERRENTERIA / TEL.: 943 51 45 53 / WW.ERRENKOALDE.ORG



GIPUZKOA

Ekin.

Gipuzkoa
oparoagoa
izateko.

Zaindu.

Pertsona guztiak eta
horien ingurukoak
zaintzen dituen.

Bizi.

Ondo eta
duin bizi
daitezen.


GIPUZKOA
Foru Aldundia



OARSO BIDASOKO HITZA
Irun kalea 8, behea
20100 (Errenteria-Orereta)



HITZAKIDEen
TXOKOA

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 85€

DENBORAPASAK
ASTEKO SARIA
ELORSORO
KIROLDEGIKO
TERMAK

Sarrera bikoitz bat
cdo-fitness.com/eu/centro-deportivo/oiartzun/



AURREKO ASTEKO
SARIDUNA
ARANTXA SAIZAR
LEGORBURU
MAHALAREN
PRODUKTUEN SASKIA.
www.mahala.eus



Kultur emanaldi guztietarako sarrera bikoitza
ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN



HILABETEKO ZOZKETA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **61**

BBK KARPIN ABENTURA
FAUNAREN BABES ZENTROA
Bi lagunentzako bina sarrera

Karrantza
Tel.: 626 622 245
infokarpin@gmail.com
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **62**

EKAINBERRI
HISTORIAURREKO ESPERIENTZIA KONPLETOA
Bi lagunentzako bina sarrera

ZESTOA
Tel.. 94386 88 11
www.ekainberri.com

Zozketan parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefonora edo sartu gure webguneetako HITZAKIDE TXOKOA atalean, maiatzaren 25a baino lehen. Saridunen izenak maiatzaren 29an argitaratuko ditugu.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitetz HITZAKIDE!

Nola? **943 34 03 30** zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.

HITZAKIDEEN TXOKOA

Bertatik bertarako

1.000

ahalegin, begirada,

herrikide, sentipen,

istorio, kontakizun,

notizia, berripaper

esker!



OIARTZUNGO
UDALA